

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Ostirala, 2013ko maiatzaren 10a. IX. urtea. 2.592. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Hezkuntza Legearen gaitzespena adierazi dute eskualdeko eskoletako atarrietan

Espainiako Hezkuntza Ministerioaren legea «inposizioan oinarritua» dagoela eta euskal curriculumak «gutxien» duela esan dute 07



Lizartzako eskolan elkarretaraztea egin zuten atzo. IT.

## ‘Badira, bagara’ dokumentalean Argia ikastolak duen errealitatea kontatuko dute

Asteasuko eta Larraulgo Pello Errota eskoletan, Tuterako ikastolak atara duen Nafarroa Oinezeko materiala eros daiteke 05

## Abel Barriolak Julen Retegiren aurka jokatu du bihar, Labrit pilotalekuan

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa gaur hasiko da; I. Ogi Berri Migel Soroa Oroimenezkoa final laurdenetan sartu da 05

## «Konfrontazio politikoa ideien eztabaidara» bideratu nahi du Bilduk

Tolosako Bilduk «liskar politikoak albo batera utzi» eta gaika birziklatzearen garrantzia helarazi nahi die herritarrei; beren konpromisoa lortu nahian, auzoz auzo antolatu dituzte saioak 03



Tolosako Bilduko ordezkariak atzo eginiko agerraldian. I.URKIZU

## Lurreamendiko parkean 81 baratze jarriko dituzte herritarren eskura

Tolosako Udalak ekainaren erdialdean zabaltzeko asmoa du; herri baratzeetan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute 02



sariduna



sarrerak



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

- Josefa Murua (Tolosa)

Maiatzak 16 • Osteguna  
20:15etan  
Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
**FC Barcelona**  
saskibaloi partida



# Euskal Herria plazan gazteentzako etxeak egiteko, 2,4 milioi euro

Horrez gain, udalak 1.375.000 euroko mailegu berezi bat eskatu du obra aurrera eramateko

## I. Urkizu

Euskal Herria plazan, gazteentzako alokairu sozialeko 25 etxebizitzak egiteko aurreikuspenaren harira, hasi da udala, lanean. Horrela, udalbatzaren azken ohiko osoko bilkuran, Tolosako Udalak egitasmo honetara 2.400.000 euro inguruko aurrekontua bideratu duela adostu zuten zinegotzi guztiak, aho batez.

Etxebizitza dotazionalak finantzatzeko, batetik, konpromiso kreditua onartu behar izan dute, beraz, udal ordezkariak. Obrak 16 hilabeteren buruan gauzatu beharko dituztenez, eta urte anitzeko gastua denez, 2013ko udal aurrekontutik, 1.486.000 euro bideratu dira Euskal Herria plazako etxeetara; 2014an, berriz, udalak 914.000 euroko kreditua

gorde beharko du proiektu honetarako.

## Mailegua ere aho batez

Tolosako Udalaren beraren aurrekontuaz gain, 25 etxebizitza hauek osatzeko, 1.375.000 euroko mailegua eskatuko du udalak; udal ordezkariak aho batez onarturiko erabakia da hau ere.

Lore Agirre alkateordeak bilkuran azaldu zuenez, proposamena zazpi erakunderi egin die udalak, eta Caja Rural de Navarrak soilik erantzun du. Dena den, Eusko Jaurlaritzako finantza araudiak betetzeko zenbait zehaztapen egin behar dituzte, erakundearekin negoziatuz.

Horrela, kopuru bera eskatu dute maileguan, 10 urterako. Interes tasari dagokionez, urteko Euriborrari dagokiona eta %4 gehiago izango da. Aipatzekoa da, ordea, mailegu berezia dela eskaturikoa: «10 urterako mailegua da eta Tolosako Udalak amortizazioei soilik aurre egin beharko die, interesak Eusko Jaurlaritzak ordainduko baititu», azaldu zuen Agirrek.



Aho batez onartu zituzten gizarte etxebizitzaren inguruko erabakiak. I. URKIZU



Hasier De los Riossek eta Mikel Insaustik eman dituzte baratzeko parkearen inguruko zehaztapenak. I. URKIZU

# Lurreamendiko baratzeko parkea ekainaren erdialdean zabalduko dute

Ireki dute jada, herri baratzetan parte hartzeko izen emate epea, ekainaren 7ra bitarte izango da

## Itzea Urkizu

Lurreamendiko lur eremuan jarriko dituzten herri baratzak erabili ahal izateko izen emate epea zabalik da jada. Interesa duten norbanako nahiz eragileek, ekainaren 7ra bitarte izena eman ahal izango dute, Tolosako udalarekin bertan, edo [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) web atarian. Baratzeko parkea, berriz, ekainaren 15 ingururako zabalduko dute.

Kutxako Ekogune fundazioko Mikel Insausti zuzendariak azaldu duenez, elikadura ekologikoaz gain, «baratzen helburua giza talde desberdinen arteko elkarbitza eta harremana sustatzea ere bada». Horrela, Gipuzkoako 16 udalerritarra zabalduko da, Ekoguneko herri baratzen proiektua.

Tolosan, guztira 81 baratzeko osatuko dituzte; bi baratzeko elbarritzat bideratuko dituzte, eta 80 metro karratuko beste lau baratzeko, berriz, irabazi asmorik gabeko elkarbitzatzeko izango dira. Azkenik, geratzen diren 40 metro karratuko 75 baratzeko horietatik, 45 langabetuentzat izango dira, eta 30 gainontzeko herritarrentzat. Tolosako Udalak lehentasuna eman nahi izan diete, lanik ez duten herritarrei, eta horregatik bideratuko dizkiete baratzen erdiak eurei.

Baratzeaz gain, lurreamendiko eremua herritar guztiarentzako parke-lorategi bilakatuko dela azpimarratu du De los Riossek: «Diseinua asko zaindu dute, leku atsegina eta funtzionala izan dadin».

Izena eman dutenen artean zozketa egingo dute baratzeko esleitzeko, eta langabetuen kasuan, urtez urte kontrolatuko dute beren lan egoera. Gainera, baratzeko erabilteko baimenek urte beteko epea izango dute, eta gehienez ere lau urtera luzatu ahal izango da baimena, «ahalik eta jende gehienak parte hartzeko».

Hasier De los Rios zinegotziak azaldu duenez, «herri baratzak erabili nahi dituzten herritarrek benetako konpromisoa hartuko dutela ziurtatze aldera», prezio sinboliko batzuk jarri dituzte; oraindik zehaztu gabeko kopuruak dira, baina gutxi gorabehera, langabetuek 5 euro ordainduko dute hilabetea, eta elbarriek berriz, 10 euro. Gainontzeko erabiltzaileek, 15 euroko alokairua ordainduko dute.

## Lursailak eta heziketa

Baratzak esleitzen dizkieten herritarrek, ikastaro trinko bat jasoko dutela nabarmendu du Mikel Insaustik; hileroko jarraipena ere izango dute, kezka eta zalantzak argitu ahal izateko.

Horrekin batera, baratzen guztiak etxola bat ere izango da, erabiltzaileak aldatu, eta tresnak bertan gordetzeko: «Autokontsumorako gunea izango da, eta hori nabarmendu nahi dugu. Familia batek ezin izango du hemen bildutako baratzekin urte osoan elikatu. Beraz, garaian garaiko produktuei balio handiagoa emango diete, eta lehen sektorearen lana baloratuko dute».

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## ↓ Iragarki laburrak

### LAN BILA

**Etxeko lanetarako.** Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesa dutenek, deitu honako telefono zenbakietara: 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.

[www.inmosalbide.com](http://www.inmosalbide.com)



**Aia.** Baserrria berri berria. 125m<sup>2</sup>-ko bi solairu ditu. 25 m<sup>2</sup>-ko terraza. Terrenoa, 110.000m<sup>2</sup>. 50.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

**Bergara.** Askarruntz auzoa. Guztiz berriua: bi logela, diseinuzko sukaldia, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

**Donostia.** Amara-Amezketakalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

**Iraeta.** Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. 92m<sup>2</sup> ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria: 54.000.000 pezeta.

**Zarautz.** SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# «Liskar politikoak utzi, eta gaika birziklatzearen behar sozialaren kontzientzia» piztu nahi du Bilduk

Abiapuntutzat jo dute, gutxienez %70a birziklatzeko Tolosako hondakinen mahaia lorturiko akordioa

**Itzea Urkizu** Tolosa

Hondakinen bilketa sistemaren azken hila batean sorturiko hika-mikaren harira, «%70 eta %85 arteko birziklatze tasak nola lortu jakitea garrantzitsua» dela azaldu du Tolosako Bilduk, egindako agerraldian. Kopuru hauek tekniko nahiz ekonomiko eskuragarriak direla nabarmendu du Antton Izagirrek: «Zentzu honetan, Bilduk konfrontazio politikoa ideien eztabaidara bideratzeko hautua egin du».

Koalizioaren iritziz, «hondakinen bilketak, eztabaidatik harago, etsaioak sortu ditu zoritxarrez, eta adostasunak baino, ezin ikusiak ere bai», azaldu dute. Izagirrek azaldu duenez, gainera, beren ikuspunturako «gaia behar baino gehiago nahastu da, neurri gain politizatuz».

Honek guztiak, auzi honetako helburua, birziklatzea eta kontzientzia, oztapatu egin dituela diote, eta besteak beste, «zuk irabazi ala nik irabazi blokeen arteko borrokatik, dialektikara pasatzeko eskaria» egin dute.

Adostasun eta elkarrizketa hau lortzeko, Bilduk Tolosako



Herritarrei hondakinen gaiaren larritasuna helarazteko helburuz, auzoz auzoko saioak antolatu dituzte. I. URKIZU

Udaleko hondakinen mahaian lorturiko akordioa hartu nahi izan du abiapuntutzat, Eider Olazar Elduainenek azaldu bezala: «Tolosan, Bilduk, Aralar eta EAJ-ren artean lorturiko akordioa zabaldu abiapuntutzat hartu nahi dugu. Bilketa mota erabaki arrerik, azterketa tekniko kontratatze onartutako oinarriek, garbi erakusten dute bilketarako proposatuko dituzten sistemak gutxienezko %70eko birziklatze tasa ziurtatu beharko dutela». Gainera, «desberdintasun desberdintasun», Tolosa Zero Zabor eta Tolosa Txukun taldeak ere, helburu berera atxiki dira.

## Topalekuak herritarrentzat

Hondakin kopuru handia birziklatu, eta «zabortege eta errauste planta berrien beharrak saiheste-

ko» helburu horri begira, Tolosako Udaleko nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiko politikariek betebeharrak dituztela dio Bilduk.

Hala ere, berebiziko garrantzia eman diote, auzi honetan herritarrek hartu beharreko konpromisoari: «Herritarrok gure konpromisoa hartu behar dugu, gure parte hartze eta elkarlanaren bidez, hartu beharreko neurriak har daitezten, eta finean, hondakin arazo izatetik konponbide ere izan daitezten», azpimarratu du Olazar Elduainenek.

Honekin lotuta, eta «Bilduk Tolosako alkatetza eta Udala Gobernuaren ardura duen neurrian», gehiengo politikoa eta sozialaren adostasuna lortzeko «erantzukizuna eta betebeharra» beren gain hartu du koalizioak: «Gogor saiatuko gara helburu hori lortzen,

eta uko egingo diegu hondakinen udal mahaian adostutako helburuetara heltzea galarazten duten eztabaida antzuei, nahiz alderdikerian aritzeari».

Honegatik guztiagatik, herritar eta eragileei zuzenduriko proposamena ezagutarazi nahi izan dute Bilduko kideek, Tolosako Alkartetxean egindako agerraldian.

## SAIOAK HERRITARREKIN

- **Amarotz auzoa.** **Maiatzak 16.** 19:30ean, Auzo Elkartearen lokaletan.
- **Larramendi auzoa.** **Maiatzak 22.** 19:30ean, Auzo Elkartearen lokaletan.
- **Kulturetxea.** **Ekainak 4.** 19:30ean, gazteleiraz.
- **Ekainak 5.** 19:30ean, euskaraz.

dian: «Tolosako auzo eta txokotara eztabaida zabaltzeko asmoa eta borondatea aditzera eman nahi dugu».



Uko egingo diegu adostutako helburuetara heltzea galarazten duten eztabaida antzuei»

**ANTTON IZAGIRRE**  
Bilduko kidea

Finean, hondakinen gain interes duen edozein norbanako edo talde gonbidatu nahi dute, auzoz auzo antolatuko dituzten topalekuetara: «Aisialdia, kultura, kirola, auzo elkarteak, dendariak, ostalariak, norbanakoak... Guztion kontua da, bestela ezinezkoa baita birziklatze tasa horietara heltzea», azpimarratu du Antton Izagirrek.

Horrela beraz, proposamenak entzun, eztabaidatu nahiz bateratzeko, eta «hondakinen arazoaren larritasuna mahai gainean jarritz, jendea kontzientziazteko», zenbait hitzordu zehaztu dituzte jada, Amarotzen, Larramendin eta kultur etxean: «Behar soziala da, eta gai honek gertutasuna galdu duenez, beharrezkoa da gertutasun hori berreskuratzea», nabarmendu du Eider Olazar Elduainenek. Aipatzeko da, beste hainbat auzotan ere lanean ari direla bilkura antolatzeak.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Gutunak

### Amasa-Villabonako Udalari, eskerrak

Administrazio publikoak eta korporazio pribatuek errauste planta eraikitze asmoak eraman gaitu Gipuzkoan zero zabor helbururantz jotzera. Hau da, konposta gehiago egin, hondakinak murriztu, berrerrabili, birziklatu eta zabor gutxiago sortu nahi izatera. Baina argi izan behar dugu honekin soilik ezin dugula ziurtatu hamar urte barru errauste planta izango ez dugunik. Eta horretarako bidean bada puntu garrantzitsu bat, jendeari ahaztu zaiona: 2011ko maiatzeko hauteskundeak.

Bildu koalizioak hankaz gora jarri zuen Gipuzkoako panorama politikoinstituzionala, lehen indarra izan baitzen Batzar Nagusietan. Hori gutxi balitz, Gipuzkoako udalerrri gehienetako alkatetzak lortu zituen. Honek panorama berri bat ireki zigon Gipuzkoan, zorienez, errauste plantaren etorkizunaren kalterako. Bildu koalizioak

Gipuzkoako udal eta foru hauteskundeetako programan agindu zuen, bere helburuetako bat hondakinak gutxitu, berrerrabili, birziklatu eta errauste planta geldiarazteaz arduratuko zela; besteak beste, Amasa-Villabonako Udalean. Horregatik egin dute atez atekoaren aldeko apustua, birziklatze tasarik handienak lortzen dituen sistema delako. Errauste planta hipotetiko baten elikagaia (zabor nahasia) izugarri murriztuko lukeenak, honen funtzionamendua bera arriskuan jarrit.

Bestetik, beste eztabaida nagusia inposizioarena da. Bilduk gobernatutako udalaren sistema hori ez inposatzeko eta herri galdeketa egiteko eskatzen dabilta atez atekoaren kontrako plataformak. Baina galdeketa zehatz-mehatz, atez ateko sistemari buruz da. Errauste planta ez baita beraientzat eztabaidagarria, «hori beste arazo bat dela» esaten dute (Patxi Amantegui Villabonako zinean). Beraz, bixitia da orain EAJk erreferenduma nahi

izatea. Zer interes dute bada? Baina nire galdera da, galdeketa zertaz? Nola? Galdeketa egiteko, argi eduki beharko genuke birziklatzea ez dela eskubide bat, betebeharra baizik; eta kutsatzea ez dela eskubidea, baizik eta debeku bat. Orduan zein izango litzateke galdera; zer egin behar den birziklatu ezin den zati txiki horrekin, ezta? Eta ez, beraiek esaten duten bezala, atez atekoa bai ala ez?

Eztabaidak eztabaida, goazen gutxiago kontsumitu, produktuak berrerrabili, naturaren zikloan berriz sartu, hondakinak gaika sailkatu eta ama lurrairekin armonian bizitzeko oinarriak berreskuratzera. Mundua aldatu nahi badugu, norberak bere mundu txikitik aldatzea esan nahi du. Errauste plantaren aldeko apustuaren atzean (=5. edukiontzia) kontsumo eredu zehatz bat ezkututzen da, ahalik eta denbora gutxienean, kontsumitza bultzatzen gaituen eredu ekonomiko aseगत: Erabili eta bota. Horregatik, eskerrak Amasa-

Villabonako Udalari hondakinak bereizteko aukera emateagatik. Aukera guztiak jarri dizkigute mahai gainean, zabor tasa gutxiago ordaindu, hondakinak birziklatzeko erraztasunak jarri eta auzokonpostea egiteko aukerak eskainiz.

Bereziki eskerrak eman Galder Azkue alkateari, benetan proiektu honetan sinesten duelako eta ingurumenean osasuntsu bizitzeko eskubidea defendatzen ari delako buru-belarri. Eman diezaigun guztiok aukera atez atekoari eta harratsunez parte hartu aurrean dugun erroka polit honetan.

■ **Iyuya Urrutia.**

### TAO eta isunak Tolosan

Urtarrilak 6, igandea eta Errege Eguna, Tolosako Zumardi Txikin aparkatzen dugu 'bertakoak' ez garen hogeia lagunok. Badaezpada sartzeran dauden errotoleui erreparatzen diegu, igandea TAOrik ez. Lasai joaten gara gure egin beharretara. Itzulera, (15:10ean) udaltzainen

oparia, 40 euro, 20 egunen buruan ordaintzeko, eta 80 euro epea igarri edo errekurtsioa jarrit gero. Ez dugu ulertzen isunaren arazoa, hainbat lagun udaltzainengana goaz eta udaltzainek aitortzen dituzte errotoleuak ulergaitz xamarra direla, jende asko kezatu zaiela eta ulertzen dutela, baina ez dagoela euren esku. Errekurtsioa jartzen dugu.

Maiatzak 7, asteartea, errekurtsioaren erantzuna jaso dugu eta 80 euroko isuna ordaindu behar dugula dio, errotoleuak ondo omen zeudelako. Nire galdera; ondo baldin bazeuden nolatan gehitu dute urtarrietatik hona «Kontuz» dion kartela? Azalpen ulergarria duen testua ere jarri dute. Ono baldin bazeuden eta ulergarriak baziren ez zeuden zertan aldatu kartelak, ezta? Azalpen garbirik gabe erraz egiten da dirua. Abesti baten hitzak datozkit orain gogora: Txintxin txintxin diruaren hotsa, harekek ermaten dit maitia bihotzian poza. ■ **B. Lizarra.**



**→ Laburrak****Haur eskolako matrikulazio epea, astelehenera arte**

**ASTEASU** > Datorren urterako Asteasuko Haurreskolan matrikulatzeko epea astelehenan, hilaren 13an, amaituko da. Iraila, Urria eta Azaroan hasi nahi dutenek ere, orain egin beharko dute matrikula. Haurreskolan bertan hartu beharko dira matrikulaziorako orriak. Informazio gehiagorako, 943690939 telefonoa eta [www.pelloerota.asteasu@haurreskola.net](mailto:www.pelloerota.asteasu@haurreskola.net) helbidea ahalbidetu dituzte.

**Eretilgo Haurreskola ixtear da ume faltagatik**

**BIDEGOIAN** > Eretilgo haur eskolan haur bakarra matrikulatu da, eta bidegoindarrei laguntza eskatu nahi diete. Izen emate epea oraindik zabalik da 943 81 29 89 telefonoan.

**Berto saioa gaur, Anoetako Gaztetxean**

**ANOETA** > Herriko eta eskualdeko bertsolari gazteekin bertso saioa egingo dute gaur 22:30ean Anoetako Gaztetxean. Txomin Azpiroz eta Oier Urkola (Anoeta), Beñat Azaldegia (Tolosa), Imanol Irazustabarrena (Alegia), Unai Mendizabal (Zizurkil) eta Ion Beloki (Andoain) izango dira bertsolariak. Bihar, berriz, Eratu eta Haxotz taldeen kontzertua izango da 23:00etan.

**Irurako Festa batzordearen bilera, astelehenean**

**IRURA** > Astelehenean festa batzordea bilduko da Maiatza Kulturala, ekaineko asteburua eta beste hainbat konturen inguruan hitz egiteko. Batzarra udaletxearen pleno aretoan izango da arratsaldeko zazpitan.

**Olatz Artola, Itxaso Frau eta Marta Prol > Dokumentalgileak**

Olatz Artola tolosarra, Tuterako Argia Ikastolako errealitatea kontatzen duen 'Badira, bagara' dokumentala grabatzen ari da beste bi ikaskiderekin. Proiektuaz eta euskaraz mintzatu dira.

**«Ez gara ohartzten zenbaterainoko garrantzia duen euskararak»****Mikel Iraola** Tolosa

Fakultateko edizio gela txiki batean, lau paretan esturen artean, ordenagailuen argitan, buru belarri lanean aurkitzen dira Olatz Artola (1991, Tolosa), Marta Prol (1991, Eibar), eta Itxaso Frau (1991, Getxo). Ikus-entzunezko komunikazioko ikasleak dira, HUEZIn, eta gradu bukaerako lan gisa, Tuterako Argia Ikastolaren errealitatea nolakoa den erakusten duen dokumental bat egiten ari dira.

**Nolako da errealitate hori?**

**Olatz Artola:** Bizirauteko bidean, oztupoak bakarrik aurkitzen dituen Ikastola da. Nafarroako eremu ez-euskaldunean dago, eta han euskaraz komunikatu eta bizitzea oso zaila da. Bestalde, arazo geografikoak daude. Inguruan Ikastola gehiago ez dagoenez, eremu geografiko zabal bati egin behar dio aurre, eta askok, bi orduko bidea egin behar dute euskaraz ikasteko. Ekonomikoki ere oso garestia da egunean kilometro asko egin behar izatea. Eta hori gutxi balitz, administrazio publikoek ez dute laguntzen egoera hau aldatzeko.

**Marta Prol:** Pínean, seme-alabak euskaraz bizi eta hezteko hautua hartzerako orduan erabat baldintzatzen duten faktore asko piltzen dira. Zaila da erabaki hori hartzea.

**O.A.:** Horregatik etengabeko gora-beherak izaten ditu Ikastolak. Hasieran, Tuterako bost pertsona bakarrik zeuden, eta ez zuten hainbesteko zailtasunik. Helburua,



MIRAOLA

baina, ez da bost pertsonak bakarrik euskaraz egitea, euskaraz normalizatzea baizik, eta horrek hedapen bat eskatzen du. Eta hedapenak zailtasunak dakartza.

**Errealitate hori dokumental baten bidez kontatuko duzue. Zein ikuspuntutik egingo duzue kontakizuna?**

**Itxaso Frau:** Argiak, euskaraz eta emakumeek Erriberan duten egoera kontatu nahi zuten. Guk, aldiz, aldatu egin dugu. Kontakizun batetik, hango errealitateak, Euskal

Herri osoarengan zein ondorio izango lukeen kontatu nahi izan dugu. Hortik izena: *Badira, bagara*. Publiko egiten dugun lehen aldian...

**Zer esan nahi du 'Badira, bagara'-k eta zein helburu du?**

**O.A.:** Baldintza esaldi deskonposatua da. Beraiek baldin badira, gu bagara. Argia Ikastolak, gugan, Euskal Herriarrangan, duen eragina ezinbestekoa dela esan nahi dugu honekin. Argia desagertuko

balitz, euskara Euskal Herriko zein eremu handian galduko litzatekeela konturatzea nahi dugu.

**Zuen esparrura eraman duzuela diozue. Nola bizi izan duzue errealitate hori lehen pertsonan?**

**M.P.:** Haur askok, uste dute euskaraz ikastolan bakarrik hitz egiteko aparteko hizkuntza dela. Ez dute telebistan entzuten, ez dute karteletan ikusten, ez dute kalean ezta etxe askotan entzuten...

**O.A.:** Kontutan hartu behar da hango eta hemengo errealitateak oso ezberdinak direla. Tolosan euskaraz bizitzea oso erraza da. Iruditzen zaigu hori dela normalean gainontzeko lekuetan. Tuteran ikusi dudana da, badagoela euskaraz hitz egin ez, baina euskaragatik asko egiten duen jendea. Beraz, euskalduna euskaraz hitz egiten duena dela dioen esaldiak ez du zentzu askorik han. Ikuspuntu hori aldatu egin zait.

**I.F.:** Gu ere hiru errealitate oso ezberdinetatik gatz. Getxon, adibidez, zailagoa da euskaraz bizitzea Tolosa edo Eibarren baino. Baina posible da. Hara joan, eta ikustea zelako ahalegina egiten duten gurasa askok, harrigarria izan da.

**M.P.:** Adibidez elkarriketatu guztiei galdetu izan diegu ea ahalegin horrek merezi ote duen, eta demostratzen dizute baietz. Ez hori bakarrik, konturatzen zara gu ez garela kontziente euskaraz gugan zelako garrantzia duen, normalizatzen josten dugulako.

**Zer esango zenuke Tolosaz?**

**O.A.:** Tolosan ez daukagula aitzakiarik euskaraz egiteko. Sentimendu kontraesankor bat eragin dit. Alde batetik, haserre eta frustrazioa, Tolosan euskara hain eskura izanda, batzuk hitz egiteko saiakerarik ez egiteagatik; eta bestetik, poza horrelako errealitate batean bizi behar ez izateagatik.

**Zer ari zarete ikasten honatik?**

**O.A.:** Norberaren balore propioak definitzea oso garrantzitsua dela. Gauza berarengatik borrokan urte asko daramatzate, eta oraindik jarraitzen dute, ideiak oso finak dituztelako. Garrantzitsua da denbora hartu, eta daukaguna baloratzen jakitea. Lehenengo pertsonalki, eta taldeka ondoren. Azken batean, taldeak egiten du borroka hori sendago.

**I.F.:** Euskara hizkuntza bat baino gehiago dela sentitzen dutela, eta guk ere horrela baloratu beharko genukeela. Aberatsago sentituko gara.

**Nafarroa Oinezeko materiala salgai Asteasu eta Larraulgo Pello Errota eskolan**

→ Asteasuko eta Larraulgo Pello Errota herri ikastetxeak urteak daramatza Tuterako Argia Ikastolari laguntza ematen, bi herrietako udal eta guraso, nahiz Hezkuntza Sailarekin batera. Laguntza ekonomikoa ematen diote, Nafarroako eremu ez-euskaldunean egoteak asko zailtzen baitu bere lana, baita dirua lortzea ere. Laguntza hori ez da nahikoa, eta aurten, Nafarroa Oinez antolatuko du Argia Ikastolak eta bertako material mordoan eraman dute Pello Errotara. Datorren ostiralera bitarte egongo da zabalik denda, ondoren materiala Tuterara itzuli beharko baitute. Ostegunera bitarte, Asteasuko eskolan izango dira saltzen, 16:15etatik 17:00etara bitartean. Ostiralean, berriz, Larraulen izango dira.

**Aurten noraino?**

Tolosan, gure eta gurego gure deklarazioa euskaraz egiten dugunak. Ekainean, 3.200 lan gureko bakoitzari urteko 5.227. Aurten, ordea, hain gutxiago gure egiten du kopurua.

**EGIZU DEKLARAZIOA EUSKARAZ!**

Herri, Tolosa, Urdaxo, Zizurkil eta UEMAko Toketako udal hauek: Adara, Anaitza, Alegia, Altsas, Anaitzeta, Bartzelena, Irujo eta Oria.

**MUNDU ZABALERAKO ZUBIA**

**ORIXE TOLOSA**

**Batxilergoak**  
Zientziak eta Teknologia  
Giza eta Gizarte Zientziak

**Irakasgaien Eskaintza Zabalena**

943 45 13 87  
E-mail: [027983a@hezkuntza.net](mailto:027983a@hezkuntza.net) [www.orixe.hk.hezkuntza.net](http://www.orixe.hk.hezkuntza.net)

Aurrematrikula: Maiatzaren 21ik 24ra

# Pilota jokoa buruz burukoa, Ogi Berri eta herriartekoaren inguruan mugituko da

Esku pilotan eta zesta puntan jokatuko da herriartekoa; Ogi Berriko partidak bihar 16:30ean hasiko dira

## Asier Imaz

Buruz buruko lehen mailako pilota txapelketan Leitzako bi pilotarik jokatuko dute asteburuan. Abel Barriolak bihar jokatuko du Julen Retegiren aurka, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Jaialdia 17:30ean hasiko da, eta Barriolaren lehia bigarrena izango da. Bigarren leitzarrak, Jaunarenak, igandean jokatuko du Eibarko Astelenan, Zabaletaren aurka. Partida 17:00etan hasiko da, eta ETB1ek zuzenean eskainiko du.

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa ere asteburuan hasiko da, bai esku pilotan eta baita zesta puntan ere. Eskualdeko herriei dagokionez, kantxara irteten lehenak tolosarrak eta zizurkildarrrak izango dira, eta ondoren alegiaren txanda izango da. Guztiek gaur jokatuko dituzte euren esku pilotako partidak.

Zumarraga-Tolosaren arteko kanporaketa 19:00etan hasiko da, lehenaren etxean. Ordu berean, Zizurkilek Lezoren aurka jokatuko du etxean, Intxaurre pilotalekuan, eta 22:00etan, Zestoa-Alegiaren txanda izango da. Alegiarrak etxetik kanpo jokatuko dituzte kanporaketaren joaneko partidak.

Lehia hauek, Gipuzkoako Herriarteko Txapelketaren final hamaseirenetan kokatu behar dira. Kanporaketa, joaneko eta itzulerako partidetan onena izan den herriak gaitutuko du; aurrera nor pasako den jakiteko, beraz, hurrengo asteburuaren zain egon beharko da.

Zesta puntari dagokionez, izen bereko txapelketan, Tolosak ordezkatuko du eskualdea. Kasu



Migel Soroaren Oroimenezko I. Ogi Berri Txapelketako partida. A. IMAZ

honetan ez da kanporaketen araberako lehia izango, guztira sei jardunaldi jokatuko beharko baititu herri bakoitzak. Tolosak Beotibarren hasiko du txapelketa, larunbatean, 10:30ean. Tolosarrek aurrean Zumaiako taldea izango dute lehen jardunaldi honetan.

### Puntako pilotari gazteak

Migel Soroaren Oroimenezko I. Ogi Berri Pilota Txapelketa final laurdenetan sartu da. Tolosako Beotibar pilotalekuan, etorkizuneko pilotariak bertatik bertara ikusteko aukera egongo da bihar. Hilaren 11ko jaialdia beneetan ikusgarria aurreikusten da. Alde batetik, Anartz Olano aresoarrek jokatuko du, eta bestetik, Erik Jaka lizartzarrak. Bi aurrelari ikusgarri hauen jokoak gozatzeko, 16:30ean hasiko den jaialdira gerturatzea izango da onena.

Kadete mailako partidarekin hasiko da I. Ogi Berri txapelketaren final laurdenetako jardunaldia. Garate-Arandia eta Urdanpilleta-Bakaikoa bikoteak irtengo dira, beraz, 16:30ean Beotibarko kantxara.

Hauen ondoren, Anartz Olanoren txanda izango da. Iruretagoien lagun duela, aresoarra Labaka-Agirrearen aurka ariko da. Aurreko koadroetan ikuskizun bikaina egongo dela aurreikus

daiteke. Olanoren potentzia eta erritmoa, Labakaren sendotasunaren aurka. Azken honek, lehen jardunaldietan bere trebezia ederki erakutsi zuen, airez aurrera duen guztietan tantoaren bila joaten dela azalduz. Atzeko kuadroetan, bi pilotari handi ariko dira nor baino nor, tantoa nork menderatu borrokan.

Jaialdiko azken partida etorkizuneko mailakoa izango da. Txapelketa irabazteko faborito den bikote bat ikusteko aukera egongo da lehia honetan, bai behintzat, palmaresari begiratzaren badiogu. Jaka-Arratibelek ikuskizuna eramango dute kantxara, bai tantoa amaitzerako unean, eta baita pilotakada ederrak ematerakoan ere. Arlo honetan, Arratibelek duen kolpea azpimarratu behar da. Jakak, aldiz, erasoan eta defentsan lan ederra egiten duela erakutsi nahiko du. Aurkari bezala Bisintxo-Perez edukiko dituzte. Bikote hau aurrereko faseetik datorrela esan behar da, eta jokatutako kanporaketa, 22-3ko emaitzan lortu zutela. Ondorioz, gauzak zail jarriko dizkie Jakari eta Arratibeli.

Azkenik, Intxurrekoen partidak aipatu behar dira. Gaur, Altxon eta Ikaztegiaren ariko dira, 19:00etatik aurrera, eta igandean, Alegian, 11:00etan hasita.

## → Laburrak

### Auto konposta egiteko gaur deitu behar da

**IKAZTEGIETA** › Auto konposta egiten 30 etxebizitzetan hasi dira ikaztegietan. Materia organiko birziklatu nahi duenak izena ematea besterik ez du, eta horretarako, 943 65 33 29 zenbakira deitu behar da. Zerranda osatzean ikastaro bat antolatuko dute. Izen emateko azken eguna gaurkoa izango dela azaldu dute udaletik.

### Bigarren auzolan saioa egingo dute bihar

**IKAZTEGIETA** › Udaletxe zaharra egokitzeko lanekin aurrera jarraitzen dute ikaztegiaren. Lehen saioaren ondoren, bigarren auzolan saiora deitu dituzte herritarrek. Bihar, 08:00etan gelditu dira udaletxe zaharrea. Oraindik falta diren margoketa lanak egin nahi dituzte bigarren saio honetan.

### Dantza ikastaroan izena emateko azken eguna

**IKAZTEGIETA** › Arin arin eta fandangoraren inguruko ikastaroa jarri nahi dute martxan ikaztegiaren, maiatzaren erditik San Joanak bitarte. Ikastaro azkarrak izango dela azaldu dute udaleko kultura batzordetik. Astearteetan izango lirake klaseak, 19:45etik 20:45era. Izen emateko 943 65 33 29 telefono zenbakira deitu behar da, eta horretarako azken eguna gaurkoa da.

### Mundumob-en grabaketa 12:00etan, bihar

**ALEGIA** › Mundumob ekimena Alegiara iritsiko da larunbatean. Hitzordua 12:00etan jarri dute, baina aurrez, 10:30ean, herriko plazan elkartuko dira azken entsegua egiteko asmoz. Dena prest ikusten dutenean hasiko dira eguerdian ekitaldiarekin. Antolatzaileek azaldu dutenez, «Orendaingo bidean mundu bola jaso eta honek zubi zaharra zeharkatuko du, eskuz esku plazara iritsi arte. Han ekitaldia eta dantza egingo ditugu». Azkenik, hamaiketako eta tertulia egingo dituzte.

### 'Euskal Herriak bakea behar du' manifestazioa

**POLITIKA** › Tolosaldeko hainbat gizarte eragile politiko, sindikal eta sozialek batzarra egin zuten atzo iluntzean Gaztelun. Egungo egoera politikoa inguruan hausnarketa bateratua egin ostean, eskualde mailako manifestazioa antolatu zuten biharko, hau da, hilaren 11rako. Mobilizazioaren leloa ondorengo izango da: *Euskal Herriak bakea behar du*.

### Guraso elkartearen alde, Paella jatea egingo dute

**ALBIZTUR** › Udalaren eta eskolako guraso elkartearen artean jai eguna antolatu dute Albiztur, bihar. Bazkaltzeko paella jatea egingo dute, eta ondoren euskal abestiak kantatuko dituzte. Amaitzeko, haurrentzat *Musika tresnen fabrika* ikuskizuna izango dute. Biltzen den dirua guraso elkartearen zerbitzuak mantentzeko izango da.



Herri Bidea 207 - 943 67 02 11 - herriid@herribidea.org - www.herribidea.org



## BIRZIKLAPEN BIRA

Nik birziklatzen dut.

Guztiau artean, edertu dezagun Tolosaldea, hobetu dezagun mundua

GAUR BIHAR

ZIZURKIL TOLOSA

+ Magoa

Maiatzak 13 ALBIZTUR

Maiatzak 14 ABALTZISKETA

VILLABONA

BALIARRAIN

www.tolosabizibidea.org

# Kultur ekitaldiz beteriko egunak datoz Berrobira eta Leitzara

Atzo hasi zen, eta hilabete iraungo du Leitzako Kultur Aroak; Berrobiko Kultur Astea datorren astean izango da

## Irigo Terradillos

Berrobin XXIII. Kultur Asteari ekingo diote astelehenean, eta Leitzan, berriz, atzo hasi zen XXXVI. Kultur Aroa. Batean zein bestean askotariko ekitaldiez gozatu ahalko da.

Berrobin, esaterako, estreina-ko Argazki Rally herrikoia antolatuko dute. Parte hartzaileen argazkiak Solastoki elkartearen izan- go dira ikusgai aste osoan zehar, eta irabazleek sari bikainak eskuratu ahalko dituzte. Sendabelarren nahiz sukaldaritzatzaileak,



Pasa den urteko Kultur Aroaren barruan Ingurutxoak dantzatu zuten Leitzan. I.T.

argazki emanaldia, patata tortilla erraldoia, mendi ibilaldia, kontzertuak edota bertso afaria ere izango dira, eta Kultur Astearen azken egunean, Udaberriko Merkaturako egungo dute, bertako produktuekin, artisautzarekin, eta bigarren eskuko materialarekin.

Leitzan, berriz, sormen tailer- rreko haurrek eta eskolako an-

tzkeri taldekoek ikuskizun polita eskaini zuten atzo, Erleta eskolan. Horretaz gain, hamaika ekitaldi izango dira. Erakusketak egongo dira Aurreran nahiz udaletxean. Herri kirolen, auzolanaren, independentziaren edota elikadura subiranotasunaren inguruko hitzaldiek eta mahai inguruek ere lekua izango dute.

Antzerkia, dantza eta musika emanaldiak ere egongo dira, La Jodederaren kontzertua eta *Pottola* antzezlanak, kasu. Nabarmenezkoak dira baita ere, Ateka- beltz eguneko ekitaldiak, Euskal Herria Mendi Erronka, Mendia, Kirola eta Abentura zinemaldia, Eskulangintza Azoka edota Sagardo Eguna.

## ↓ Egitarauak

### BERROBI

**MAIATZAK 13, ASTELEHENA**  
■ **17:00-20:00.** Sendabelarren tailerra Etxolan, Amaia Baztarririkaren eskutik. Ludoteka zerbitzua egongo da.

**MAIATZAK 14, ASTEARTEA**  
■ **17:00.** Plater goxoak prestatuko ditu Felix Belaunzararen sukaldariak Bide Ona elkartearen. Ludoteka zerbitzua eskainiko dute.

**MAIATZAK 15, ASTEAZKENA**  
■ **16:00.** Toka txapelketa, bingoa eta merienda solastoki elkartearen.  
■ **20:30.** San Isidro eguna ospatzeko baserriarrek afaria Iriariten.

**MAIATZAK 16, OSTEGUNA**  
■ **17:00.** Literatur Lehiaketako sari banaketa.  
■ **Ondoren.** Miru ipuin kontalaria.  
■ **20:00.** *Asiak* argazki emanaldia Etxolan, Agurtzane Belaunzararen eskutik.

**MAIATZAK 17, OSTIRALA**  
■ **17:30.** Eskolako umeen emanaldia.  
■ **20:30.** Patata tortilla erraldoia.  
■ **23:00.** Kontzertuak Begi Gorri Gaztetxean: Zurruma eta Way-Not.

**MAIATZAK 18, LARUNBATA**  
■ **10:00.** Berrobiko mugarririk ezagutzeko mendi ibilbidea Joseba Alonsorekin.  
■ **16:30.** Umeentzako merienda eta jolasak.

■ **17:00.** Mus Txapelketa, Jolas-tokin.  
■ **19:30.** Plazak Bete ekitaldia.  
■ **20:00.** Trikipoteoa.  
■ **20:30.** Bertso afaria, Julio Soto eta Jexux Mari Irazu bertsolariarekin, Bide Ona elkartearen.

**MAIATZAK 19, IGANDEA**  
■ **Egun osoan.** II. Udaberriko Merkaturako: Bertako produktuak, artisauak eta bigarren eskukoak egongo dira salgai. Umeentzako Baratz Tailerra.  
■ **17:00.** Pilota partidak: Egiguren-Erauskin eta Zubiria-Alberdi. Labaka-Elustondo eta Urbietza-Esnaola.

**ASTE OSOAN**  
■ **Erakusketak.** Argazki Rallyko argazkiak egongo dira ikusgai, Solastoki elkartearen.

### LEITZA

**MAIATZAK 15, ASTEAZKENA**  
■ **19:00.** *Aizkora apustuak eta txapelketak* hitzaldia, Espelosin eta Gabriel Saralegirekin, liburutegian.

**MAIATZAK 16, OSTEGUNA**  
■ **20:00.** *Banka etikoa eta alternatiboak* hitzaldia, Mikel Ortigosarekin, Aurreran.

**MAIATZAK 17, OSTIRALA**  
■ **19:00.** Aralar Musika Eskolako ikasleen emanaldia, zinean.  
■ **23:00.** Carlos Colin y los otros taldearen kontzertua, Peritzan.

**MAIATZAK 18, LARUNBATA**  
■ **09:00.** Okabio-Areso-Leitza mendi ibilaldia, plazatik abiatuta.



Felix Belaunzararen tailerra arrakastatsua izan ohi da Berrobin. A.I.

■ **20:00.** Hirutxulo folk taldearen kontzertua, Gaztañagan.

**MAIATZAK 19, IGANDEA**  
■ **12:00.** Organo eta bibolin kontzertua, elizan.  
■ **13:00.** Hirutxulo folk taldearen kontzertua, Gaztañagan.  
■ **19:00.** *Pottola* antzezlanak, zinean.

**MAIATZAK 20, ASTELEHENA**  
■ **19:30.** *Emakume baserriarren begiradak* erakusketaren aurkezpena eta Euskal Herriko produktuen dastaketa, EHNEko Josune Gorritirekin, udaletxean.

**MAIATZAK 21, ASTEARTEA**  
■ **09:30.** Peruharrira ibilbidea egongo dute institutuko ikasleek.

■ **20:00.** Elikadura subiranotasunari buruzko hitzaldia, EBELeko Ainara Urrizarekin, Aurreran.

**MAIATZAK 22, ASTEAZKENA**  
■ **20:00.** Auzolanari buruzko hitzaldia, Jasone Mitxelorenarekin, Aurreran.

**MAIATZAK 23, OSTEGUNA**  
■ **09:30.** Entrenamendu mentala gazteentzat, institutuan.  
■ **20:00.** *Independentzia, Nafarroarik gabe?* mahai ingurua, Floren Aoz, Angel Rekalde eta Txente Rekondorekin, Aurreran.

**MAIATZAK 24, OSTIRALA**  
■ **09:30.** Entrenamendu mentala gazteentzat, institutuan.  
■ **17:00.** Erleta eskolako haurren dantza saioa, zinean.  
■ **00:00.** La Jodedera taldearen kontzertua, Torrean.

**MAIATZAK 25, LARUNBATA ATEKABELTZ EGUNA**  
■ **11:30.** Serigrafia tailerra eta jolasak umeentzat, Atekaletzen.  
■ **14:30.** Bazkari kubatarra.

■ **16:45.** Murrizketen aurka Lip-dub grabaketa.  
■ **17:30.** Atekatik plazara.  
■ **20:30.** Bertso poteoak, Leitzako bertso eskolakoekin.  
■ **20:00.** Jeiki abesbatzaren *Munduko folklorea* emanaldia, Karrapen.  
■ **23:30.** Kontzertuak Atekaletzen.

**MAIATZAK 26, IGANDEA**  
■ **11:00.** XXXV. Eskulangintza Azoka, plazan.

**MAIATZAK 28 ETA 30**  
■ **20:00.** II. Mendia, Kirola eta Abentura zinemaldia, Peritzan.

**MAIATZAK 31, OSTIRALA**  
■ **18:00.** Euskal Herria Mendi Erronkako dortsalen banaketa egongo da.  
■ **20:00.** Elkartasun elkarretaratzea.  
■ **20:30.** Alex Txikonen emanaldia, zinean.

**EKAINAK 1, LARUNBATA**  
■ **05:00.** Euskal Herria Mendi Erronka, plazatik abiatuta.

**EKAINAK 7, OSTIRALA**  
■ **20:00.** Hitzaldia, Aurreran.

**EKAINAK 8, LARUNBATA**  
■ **Egun osoan.** V. Sagardo Eguna.

**ERAKUSKETAK**  
■ **Margolanak.** Mikel Alkotzen margolanak, Aurrera elkartearen.  
■ **Argazkiak.** *Emakume baserriarren begiradak*, udaletxean.  
■ **Eskulanak.** Haurrek eginiko eskulanen erakusketak izango da ikusgai.





Iazko Zikloturista Martxako une bat. IRRINTZI ELKARTEA

## Irrintzi elkartearen Martxa Zikloturista izango da igandean

Parte hartzaileek bi ibilbide izango dituzte aukeran: luzea, 122 kilometrokoa, eta motza, 83 kilometrokoa

### I. Terradillos

Irrintzi elkarteak antolatuta, Villabonako 7. martxa zikloturista Iker Usabiaga Otaegiren oroimenezkoa izango da etzi. Ez da lasterketa, beraz, ez da txirindularien denborarik hartuko ez eta sailkapenik egingo ere. Gainera, parte hartzaileek bi ibilbide izango dituzte aukeran, bata luzea, 122 kilometrokoa, eta bestea motza, 83 kilometrokoa.

Martxa 08:00etan hasiko da, Villabonako Malkar plazatik. Ibilbide bat zein bestea egingo dutenak batera aterako dira, eta Leitzaraino bide berdina egingo dute, Berastegi ondoren Gorosmendi gaina igoz. Ibilbide luzeak Leitzan Usategieta gaina aldera joko du eta beste mendate hauetatik igaroko dira: Orokieta, Aldatz, Azpirotz eta Alkiza. 12:15ak aldera Villabonara iristea aurreikusten dute antolatzaileek.

Ibilbide motza egiten dutenek, berriz, Leitzan Uitzaldea aldera joko dute, eta ondoren Azpirotz eta Alkizako gainak igaroko dituzte. 10:50ak aldera iritsiko dira horiek Villabonara.

Mekanika eta osasun zerbitzua ibilbidea guztian zehar izango da, eta horniketa guneak Saldias, Azpirotz eta Villabonan jarriko dituzte.

### Izen ematea

Parte hartu nahi dutenek aurrez eman dezakete izena, *kirolproba.com* webgunean, federatuta daudenek 15 euro, eta ez daudenek 24 euro ordainduta. Egunean bertan, berriz, 07:00etan eman ahalko da izena, eta kasu horretan 20 euro ordainduko dute federatuek, eta 29 euro federatuta ez daudenek.

Antolatzaileek adierazi dutenez, 500 pertsonera mugatu dute parte hartzea, eta txirindulari bakoitzak kaskoa eman behar du. Helmugan parte hartzaile bakoitzak elastiko bat jasoko du, eta materialen zozketan parte hartuko du.

Martxari buruzko informazioa eta argazkiak [www.irrintzielkaritea.net](http://www.irrintzielkaritea.net) web orrian ikusi daiteke.

## → Laburrak

### Rekondo eta Otaegi final-laurdenetan, bihar

**HERRI KIROLAK** ▶ Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketaren final-laurdenetan parte hartuko dute Jon Rekondo leitzarra (Urduñako Foruen Enparantzan, bihar, 12:00etan) eta Joseba Otaegi zizurkildarrak (Dimako frontoian, 19:00etan).

### XXIV. Eskolaren Astea, astelehenetik hasita

**LIZARTZA** ▶ Lizartzako eskolak XXIV. Eskolaren Astea antolatu du hilaren 13tik 17ra. Hainbat jarduerak antolatu dituzte, tartean, asteartean izango den zirkoa eta afari-merienda eta asteazkeneko jaialdia.

### Manifestazioa Huyck Wangnereko langileen alde

**TOLOSA** ▶ Zizurkilgo Huyck Wangner-eko langileen aldeko manifestazioa antolatu dute biharko, 12:00etan, Tolosako Trianguloa plazatik hasita. Borrokan jarraitzen dutela er gatazka ez dela amaitu aldarrikatuko dute langileek.

### 'Gartxot' animaziozko filma, Atekabeltzen

**LEITZA** ▶ Atekabeltz Gaztetxeak *Gartxot. Konkista aitzineko konkista* animaziozko filmaren proiektzioa emango du, gaur, 22:30ean, gaztetxean bertan.

### Azken eguna da gaur izena emateko etxebizitzetan

**IBARRA** ▶ Gazteentzako zuzkura etxebizitzetan izena emateko epea gaur amaitzen da. Interesatuak dokumentazio guztia (inprimakiak, araudia...) udaletxeko harreraren nahiz gizarte zerbitzuetan, kultur etxean edota [www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net) webgunean eskuratu ahalko dute. Inprimakiak udaletxean edota kultur etxean entregatu behar du.

## Hezkuntza legea gaitzetsi dute hainbat ikastetxetan

Alegian nahiz Lizartzan elkarretaratzeak egin dituzte eskolen atarietan, Hezkuntza Legearen aurka egiteko

### I. Terradillos

Espainiako Hezkuntza Ministerioak Wert ministroaren eskutik proposaturiko Hezkuntza Legea (LOMCE) gaur onartuko dutela ministroen kontseiluan aurreikusten da. Bada, lege horren aurkako jarrera adieraziz, ikastetxe ugariaren ataritan, eskualdeko hainbat tartean, elkarretaratzeak egin zituzten atzo.

Alegian eta Lizartzan, esaterako, irakasleen, ikasleen eta gurasoen artean, 150 lagun inguru elkartu ziren protesta egiteko, *LOMCEri ez! Guk gure eskola. Euskal eskola publikoa* zioten karteekin. Mezu horretaz gain, beste hainbat ere erakutsi zituzten, hala nola, *Ez berezikiatari! Ez eskola ordutegian erlijioa irakastari! Ez parte hartu ez dezakegun hezkuntza sistemari! Ez euskara eta gure curriculumak gutxieste-*

*ri! eta Ez musika, plastika, hiritartasuneko hezkuntza, teknologia desagertzeari!*

Hezkuntza Legeak komunitate osoaren parte hartzea ez duela bermatzen azaldu dute, «inposizioan oinarritua» baitago. Bestalde, legea gaitzesteko beste arrazoia «ikasleen arteko bereizketa» bilatzen duela da. Era berean, euskal curriculumak gutxiesten duela adierazi dute. «Oinarrituriko ikasgaietan, Hezkuntza Ministerioak erabakiko du edukien %100: ebaluazio irizpideak zein izango diren, gaitasunen lorpena edota ebaluaketa estandarrek, eskola komunitateak curriculumak eztabaidatu eta bere garapenean parte hartzeko duen eskubidea ukatuz», esan dute.

Hezkuntza Legeak euskara ikasgaien azken mailan kokatzen duela ere gaitzetsi dute hezitzaileek, eta baita, eredu bakarrean oinarrituriko estatu mailako azterketak ezartzen dituela. Era berean, erlijioa eskola ordutegian txertatzera derrigorrekoa eta musika edo plastika moduko irakasgaiak desagertaraztea ere Hezkuntza Legea ez onartzeko arrazoi gisa azaldu dituzte.



Alegiako eskolan 100 lagun inguru elkartu ziren atzo. A.I.

## 🎯 Hilberriak eta urteurrenak

### ESKELAK

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

- V. URTEURRENA -

**AMETS AIZPURUA AGIRRETXE**



Maitasunak ez du neuririk, zure hutsuneak ez du mugarik.

Etxekoak

Zuzena, 307ko maiatzak 10



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	16°
HOTZENA	10°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:** **BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaurdi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduña, Albiztur, Alegia, Altoz, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agurrak**



**Zorionak!**

**Lexuri Aizpurua (Asteasu).** Zure zortzigarren urtebetetzean, Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.

**AGURRAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**Agenda**

**GAUR**

**DEIALDIAK**

■ **Anoeta.** Anoetako gaztetxearen urteurrenaren harira, bertso saioa izango da, 22:00etan.  
■ **Ikaztegieta.** Arin-arin eta fandangoko ikastaroan izena emateko aukera dago. Hurrengo astean hasi eta San Joanak bitartean izango da, asteartetan 19:45etik 20:45era. Izena emateko azken eguna gaur izango da, 943 65 33 29 udaletxeko telefono zenbakira deituz.

■ **Tolosa.** 40 Maiatza Borrokanen barruan, 19:30ean, Alex Garcés Western Sahara Resource Watch kidearen hitzaldia izango da, kultur etxean.

■ **Tolosa.** Jabekuntza Eskolaren barruan, *Zurizer kontatu dizute feminismoaren gainean?* tailerra izango da, kultur etxean, 16:00etatik 20:00etara.

■ **Zizurkil.** Herri Urratsera joateko autobusa antolatuta dute udalak eta Txepetxa gazte asanbladak. Izena udal bulegoetan edo Atxulondo, Iriarte eta Egarrir tarternetan eman beharko da, eta 10 euro momentuan ordaindu beharko dira. Gaurkoa da izena emateko azken eguna.

■ **Zizurkil.** Maiatza Saltsan egitasmoaren barruan, Udaltzar-

dunaldi teknikoak izango dira, Atxulondon.

■ **Zizurkil.** Tolosaldeko Mankomunitateak hasi duen *Birzikla-pen bira* Zizurkilera izango da. Goizez beheran eta arratsaldean. Herritarrek birziklatzearen garrantziaz jabetzeko informazioa banatuko diete, eta baita gaiarekin lotura duten produktuak ere.

**MUSIKA**

■ **Tolosa.** Belako taldearen kontzertua izango da, 22:30ean, Bonberenean.

**ANTZERKIA**

■ **Aduna.** Asvinenean, Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren bigarrena kanporaketa izango da. 22:00etan hasiko da, eta bost euro ordaindu beharko da.

■ **Tolosa.** Gorka Otxoa eta Carla Hidalgo aktoreek *Para lo que hay que vivir mejor no morirse nunca* antzezlan taularatu dute, 20:30ean, Leidorren.

**MAIATZAK 11, BIHAR**

**DEIALDIAK**

■ **Amasa-Villabona.** Onddo Gazte Asanbladak antolatuta, argazki lehiaketa egingo da, Errebote plazan. 11:00etatik 13:00etara izango da, eta izen ematea 10:30ean irekiko dute.

■ **Tolosa.** Tolosaldeko Mankomunitateak hasi duen *Birzikla-pen bira* Tolosako Triangulora iritsiko da. Herritarrek birziklatzearen garrantziaz jabetzeko informazioa banatuko diete, eta baita gaiarekin lotura duten produktuak ere.

■ **Zizurkil.** Maiatza Saltsan egitasmoaren barruan, *Errimak oinetan emanaldia* izango da. In-txaur pilotalekuan. Sarrera, bost euro ordaindu beharko da.

**MUSIKA**

■ **Anoeta.** Anoetako gaztetxean Eratu eta Haxotz taldeek joko dute, 23:00etan. Sarrera 3 euro ordaindu beharko da.

■ **Tolosa.** Humus, Switch eta Earki bizi Sound System taldeak ariko dira, 22:30etik aurrera, Bonbereneako taula gainean.

**MAIATZAK 12, ETZI**

**DEIALDIAK**

■ **Amasa-Villabona.** Onddo Gazte Asanbladak antolatuta, Erromeria egingo dute, Komizarraren. 11:00etan Errebote plazatik abiatuko dira. Trikitilariak eta bertsolariak izango dira giro alaitzen, eta jatekorik eta edatekorik ez da faltako.

■ **Berastegi.** XXI. Ibilaldi Neurtua izango da. 30 kilometroko ibilbidea egiteko, 07:00etan abiatuko dira herriko plazatik. Izen ematea, egunean bertan egin ahalgo da 06:30etik aurrera, 6 euro ordainduz.

■ **Hernialde.** Nekazal, Abeltzain eta Artisautza Azoka egingo dute. 10:00etatik 14:00etara izango da, pilotalekuan.

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

**BIHAR**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa

etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

**ETZI**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

**ETZIDAMU**

■ **Tolosa.** Egunekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako Arbolaren lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40  
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

<p><b>LANSIDE HEZKETA</b> ATE BIKEREN HAZI JALDIA ORRIKU PUNTEA ARBOTEK</p>	<p><b>MAIATZAK 22-23 MAYO</b> Oñateko Herria 17:00 - 20:00 Herriko plazan</p>
---	---

**ARRIARAN** 1949

ESTACION DE SERVICIO ARRIARAN, S.L.  
LARRAMENDI, 28: 38 posta kutxa  
20400 TOLOSA (GIPUZKOA)  
TEL. (943) 67.48.28 - FAX. (943) 67.49.82  
www.arriaran.com

**AVIA**

Soterramenduko obrak dirauen bitartean

**ABANTAILA HOBERENETAZ BALIATU ZAITEZ!!!**

**TXARTELEKO DESKONTUA %50AN GEHITU**

**GARBI EZAZU ZURE KOTXEA DOHAIN**  
ARRIARAN GASOLINDEGIAN GASOLINAZ HORNITUZ GERO

\*OHARRA: Informa zaitez promozio honetaz Arriaran gasolindegian.

ALDI BATERAKO SARBIDEA ARRIARAN GASOLINDEGIRA, NORABIDE GUZTETARA JOATEKO AUKEAREKIN ACCESO PROVISIONAL A LA ES. ARRIARAN CON POSIBILIDAD DE ACCEDER A TODAS LAS DIRECCIONES

**Mauka berria**

**Aurpegiko espres tratamendua**

**GAURKO ESKAINTZA**

**Prezioa 9€**

**berria** taldea

EGUZKILORE OSASUN SPA  
Erregezainen kalea, 4  
DONOSTIA 20008 • GIPUZKOA  
Tel.: 943-57 58 25  
eguzkiloreosasun@yahoo.es

**www.mauka.eu**